


Adineko emazte batek bihotz
gelditze bat badü eta ospitalilat
eramanik da.



Ebakuntza mahainaren gainean,
heriotzaren atean, bizitzen dū
« experientzia » bat.



Jinkoa ikusten dü eta galtatzen
deio: « Ene orena heltü da ? »



Jinkoak ihardesten deio:




« Ez, 43 urte, 2 hilabete eta 8 egün
baratzen zaitzü. »




Iratzartzean, ospitalean egoitea erabakitzen dū, begitartea
arratiraraztea, liposuccione baten egitea, ezpainetan « collagène »
txertatzea, titien arreginaraztea eta oro.



Orano lüzaz bizi behar züanez,
balio züan.



Bere azken ebakuntzaren ondotik, ospitaletik elkitzen da, karrika trebesatzen dū eta kamioi batek joiten dū.




Jinkoaren aitzinean, Zelüalat
heltürik, kexü galtatzen deio:



« Zer da hau? Orano 40 urtez goiti bizi behar nūala
üdüri zait!!!

Zertako kamioi horren bidea ez deitazü saihetsarazi?



Eta Jinkoak arrapostü:
« ReDios! Ez züntüdan
arrezgütü!! »



Erakaspena:
NATURAL EGON.

